

Euskadiko Artxibo Historikoak "Artxiboetan kontserbatutako dokumentuak irakurtzen ikastea" izeneko paleografiaren inguruko tailerra antolatzen du. Ikastaro praktikoa izango da, eta horren helburua, bertaratuek XII. eta XVIII. mendeen arteko letretan idatzitako dokumentuak irakurtzen ikastea da.

Tailerrak 20 orduko iraupena izango du, bi ordu eta erdiko saiotan antolaturik. 2019ko maiatzaren 2tik ekainaren 20ra bitartean María Díaz de Haro 3. zenbakian, Artxiboko egoitzan, izango da 18:00etatik 20:30etara.

Prestakuntza ekitaldian 15 pertsonak har dezakete parte; interesa duten guztiei eta programatutako saio guztietara joateko prest daudenei zuzenduta dago. Plaza kopuru mugatua dela eta bertaratzea nahitaezkoa da irakaskuntzak ondo aprobetxatzeko eta baliabide publikoak erabiltzea eskatzen duen errespetuaren onerako. Aldez aurretiaz jakinarazi gabe etortzen ez diren pertsonak hurrengo ikastaroetarako lehentasuna galduko dute.

Tailerra Javier Enríquez Fernández-ek emango du, Historian Doktorea eta Unibertsitateko Artxibistikan Espezialista.

Izen-ematea idatziz egin behar izango da Artxiboko [webean](#) dagoen eskaera orriaren bitartez eta eah-eah@euskadi.eus helbidera bidaliz.

Izen-emateko **epea** astebetekoa izango da: apirilaren 8tik 12ra. Ez dira onartuko dataz kanpoko eskaerak.

Onarpena izen-emate hurrenkeraren zorrotzagatik egingo da. Eskaeren kopurua eskainitako 15 plazatik baino gorakoa bada, itxaron zerrenda sortuko da.

Onartuen zerrenda [Artxiboko web-orrian](#) argitaratuko da 2019ko apirilaren 16an, eta onartutakoei posta elektronikoren bidez jakinaraziko zaie zuzenki. Onartutakoek edozein arrazoiagatik ezin izango balute parte hartu ikastaroan, idatziz jakinarazi behar izango dute helbide elektroniko honen bitartez: eah-eah@euskadi.eus tailerra hasi baino lehen

Egitaraua:

1. 2019/05/02: Aurkezpena. Alde teorikoa: Ziklo grafikoak. Transkripzio-arauak. Paleografia eta informatika. Grafia humanistikoak: ezaugarri orokorrak.
Alde praktikoa: humanistika biribila eta etzana.

2. 2019/05/09: Alde teorikoa: Dokumentua: definizioa eta ezaugarriak. Tradizio dokumentala: jatorrizkoak eta kopiak. Ingalaterrako letra eta bere ezaugarriak.
Alde praktikoa: Ingalaterrako letra etzana.

3. 2019/05/16: Alde teorikoa: Dokumentuen kronologia: sistemarik ohikoenak. Dokumentuen balidatzea. Grafia gotikoak: ezaugarriak.
Alde praktikoa: libreria eta biribila gotikoak

4. 2019/05/23: Alde teorikoa: Dokumentazio kanpoko eta barruko ezaugarriak: material eskriturarioak.
Alde praktikoa: letra etzan gotikoa.

5. 2019/05/30: Alde teorikoa: Dokumentuen egitura.
Praktika: gotiko aurregortesaua.

6. 2019/06/06: Alde teorikoa: Genesi dokumentala. Notarriotza
Alde praktikoa: gotiko gortesaua.

7. 2019/06/13: Alde teorikoa: Deskribapen dokumentala.
Alde praktikoa: gotiko gortesaua.

8. 2019/06/20: Alde teorikoa: Dokumentuetako produktoreak: administrazioa, erakundeak...
Alde praktikoa: gotiko prozesala.